

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko martxoaren 26a IV.urtea

Usurbil, 63. Zenbakia



**Laguntza guztien  
gainetik oztopoak  
baserrietan**



## Txerrimunik ordainetan



Azkenean **Eneritz** iritsi zen martxoaren 14a. Bost urte bete zituen gure neskatilak. Urte askoan eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak "**aitona Miguel**"! Martxoaren 23an bete zenituen urteak. Besarkada haundi bat etxekoan partetik, eta batez ere Ainhoa, Jon eta Andoni zure hiru iloben partetik. Aupa aitona!



**Xabier Bengoetxea**. Martxoaren 29an 6 urte beteko dituzu, nola pasatzen den denbora e? Zorionak frontoiko lagunaren partez. Etxekoek eta batez ere zure arreba Anek muxu potolo bana bidaltzen dizkizugu.



Zorionak eta muxu bat. Apirilaren 5ean 12 urte beteko dituen **Joseba Undianori**. Ondo pasa Joseba! Etxekoak



**Christian Izagirre**. Zorionak zure guraso eta anaiaren partez, martxoaren 11n 6 urte bete baitzenituen.



Urte askoan **Unai**! Apirilaren 4an 10 urte beteko dituzunez zorionak eman nahi dizkizugu etxekoek. Egun on bat pasa dezazula.



Zorionak Matraka! Zure bigarren urtebetetze eguna dela eta, muxu haundi bat Santuenetik. Ondo pasa **Olatz!**



Zure argazkiak **Noaua**n atertzeko nahia dela eta, hona hemen! Urte askoan koadrilaren partez.

## Hildakoak

1999-03-10  
**Manuel Mujika Peña**  
75 urte  
Atxegalde



1999-03-16  
**Francisco Liebana Torres**  
75 urte  
Santueneta

**Seme-alabak, aiton-amonak, lagunak, lehengusuak... zoriondu nahi badituzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri jarri nahi duzun testuarekin batera.**

**Hurrengo alea: apirilaren 6a**

**Agurrak ekartzeko epea: martxoaren 30a**

### EUSKO TRENBIDEAKEN NEGUKO AUTOBUS ORDUTEGIA

#### ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

#### ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	22.15	21.45	22.05	22.30

## Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkartea egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

\* Oriaraino bakarrik

\*\* Aiaraino joaten da

\* Oriotik irtetzen da

\*\* Aiatik irtetzen da



# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Saioa Erro eta Idoia Torregarai

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaoa Arnaz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Kar-mele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino eta Arantxa Irazustabarrena.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta Inaxio Usarralde.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko  
ordutegia: 16.30-18.30 astegunetan

**Azala: Errementaldegi base-  
riko justu Kamino bere asto-  
arekin. Esne behiak kendu  
berri ditu.**



... eta igandean denok  
**KORRIKARA!**

**Garbiñe Urrestarazu Esnaola**

**Etumeta euskaltegiko irakaslea**

**1** +1= hamaika. Zu eta ni euskaraz. Hori da aurtengo KORRIKAREN leloa. Iruñean abiatu zen hilaren 19an eta dagoeneko zeharkatu ditu Euskal Herriko hainbat zonalde, eskualde eta herri. Izan ere, bere helburua txoko guztietara heltzea baita, euskararen mezua eramatea, iraganaren oihartzuna eta etorkizunaren indarra.

Donostian amaituko du bere ibilbidea hilaren 28an, eta egun horretan bertan igaroko da Usurbildik goizeko bederatzia aldera. Kontutan izan ezazue bezperako ordu aldaketa, goizeko ordubietan hirurak izango baitira, lo egiteko edo juergarako ordubete gutxiago beraz.

KORRIKA euskararen alde egiten den ekitaldi garrantzitsua da, baina ez da bakarra. Denok izango duzue gogoan Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egingako Bai euskarari! kanpaina. Bertan, Euskal Herriko biztanleok euskaraz bizitzeko nahia


agerian jarri genuen. Nahi hau aurrera eramateko, euskaraz bizitzeko oinarriak jartzeta eta horretan ahalegintzea ezinbestekoa bilakatzen da. Horregatik, aurtengoan, luzatzen den eskaria gutako bakoitza eta gure lantoki, lagun taldeak eta abar euskaldunagoak izan daitezen, ahalegin berriak egiteko konpromezua hartzea da. Euskararen aldeko gure jarra praktikara eramatea da helburua.

KORRIKA 11ren lekukoa Aginagan jasoko degu eta gure herrian zehar bederlatzi kilometro egin ondoren, Lasartera joango da eta handik Donostiara. KORRIKA AEKK antolatzen badu ere, ez da AEKrena, herriarena baizik, zuek egiten duzue KORRIKA eta.

Beraz, badakizue, jantzi txandala eta zapatilak eta ttipi ttipa, ttipi ttipa KORRIKA egitera. Ondoren, Donostian jaia izango dezue, KORRIKA festa hain zuzen ere.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



## Intsumitua ala pasota?

Herri honetako Alkatea preso hartu edo ez, hamaika aldiz eraman izan dute Donostiako Entzutegira, intsumisioa dela-eta, adierazpenak egin ditzan. Korapilo berberean sarturik, ezgaitzeko (kargutik apartatzeko) proposamen ofizialak ere iritsi zaizkio. Baita anonimo sinpatikoak ere ("Muerte a los hijoputas traidores!", etc., etc.).

Herrian zehar megafonia, mani-fa eta kartelen bidez auziaren propaganda egin zen baina, eguna iritsita, epaiketa egin behar zen tokian intsumisorik ez, ia.

Zeren intsumitu haiz? Espainiako armadaren aurka ala atsegin ez duan guztiaren kontra? Zergatik habil horrelako saltsetan, zerbaiten aldeko militantziagatik ala erreakziozko utzikieragatik?

Zein da hire jokabidea, kontra egitea ala ezertxo ere ez egitea?

Nola ez duk parte hartu orain ere? Epaiketa hau behar bezala iragarrita ez egoteagatik, informazioa jasotzeko gauza izan ez hin-

zelako? Hire kontua zela ez hekielako? Hire kontua zela jakinik, marroia gainontzekoei uzteko? Nori utzi diok arazoa, intsumisio alorreko arazorik ez duenari? Gizabidezkoa al da hori?

Ba al dakik Euskal Herria intsumisio-kontuan ereduzkoa dela, Estatu espainolean ez ezik, mundu osoan ere? Hik, usurbildar gazte intsumitu horrek, ereduzkotzat jotzen al duk hire burua?

Nahikoa al da "Intsumisio Kalea" plaka batean jarri, afaria egin eta horretan geratzea?

Badakigu armadak profesionalizatzean intsumisio-arazorik ez dela egongo, baina aurrerantzean ere horrelako jokabidea erakutsi behar duk?

Gainontzeko arazoan konponbidean, gaurkoz, ez gara sartuko. Badirudi, ordea, presoen gaia dela intsumisioa, baina ez, ordea, presoen askatasuna intsumituen gaia. Intsumitu gizonezko eta emakumezkoena, noski, denok osatzen baitugu gizartea.

**"Sistemak irentsitako intsumitu epelen kontrako intsumituak"**

## Udalerrien biltzarra

Gustora irakurri dut Josu Aranberrik idatzitako "Usurbilgo udala 1931ko udalerrien biltzarrean" izeneko artikulua. Euskal Herriko gertakizun nagusietan, historiak protagonista nagusiak bildu ditu bere orrietan. Baina beste protagonista asko ere bazen, nonbait, eta hala ageri da erreportaje horretan. Hala ere, gutxi gustoarekin geratu naiz. Izan ere, nortzuk ziren 1931ean usurbilgo udalean zeuden errejidore horiek? Domingo Arrillaga alkatea, Nazario Aizpurua, Andres Iribar, Francisco Salsamendi, Atanasio Artze, Raimundo Illaramendi, Joaquin Salsamendi, Ignacio Urkia, Jose Antonio Bereziartua eta Jose Miguel Begiristain nortzuk ziren, zein etxe eta auzotakoak, zein lanbide zuten? Oker ez banago, Atanasio Artze gero famatuagoak izan ziren bi Artzetarren aita izan behar zuen, harakina. Eta besteak? Aspaldiko kontuak dira, egia da, baina aspaldiko gauza horiek esplikatzen dituzte gero gertatu diren beste hainbeste ere. Ea nork emandezakeen informazioa horretaz.

**Pello Zubiria Kamino.**

**T**xirikitutik



"Kaixo, zer moduz? Oso ondo, bai?" Honela has-ten da **Freddyk** Britania Haunditik bidali digun eskutitza. Izan ere, Europan gerra amaitu zeneko 50. urteurrena ospatzen zuten egunean egindako argazkia bidali digu. Bere etxe aurrean ikurrina jarri zuen Britania Haundia eta Frantziakoarekin batera.

**P A T R I**

**J A T E T X E A**

Eguneko bazkariak eta afariak

**MAHUKA**

*Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

**XABIER EDARITEGIA**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak


Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06




# Berriketan



## Ebaristo Pikabea

Zubietako Petritza baserrian bizi bada ere aginagarra da Ebaristo. Angula ugari bil-dutakoa da eta jan ere ez omen ditu gutxi egin. Hala ere, bertsolaritza da gaur egun bere denborapasarik gogokoena.



**Azken urteak txarrak izan dira angulak jan nahi dituenarentzat.**

Ni 11 urterekin hasi nintzen angulak harrapatzen eta ez dago konparatzerik. Garai hartan ala ure-tara bota eta zetorrena harrapatzen zen. Orain, ordea, dagoen guztia eramaten dute aurretik. Ibaian sortu den gerra bat da. Dena galtzen ari da, izadi guztia. Orain dela 10 urte asko ibili nintzen anguletan. Gauean joan ezker noiznahi 15-16 kilo ekartzen nituen. Gaur egun gau bat pasa eta lau kilo ixkira osatzea ez da erraza.

**Noiz joan zinen azken aldiz anguletara?**

Pasa den udazkenean buelta bat eman nuen eta hiruzpalau pertsonen artean bertso afariaren batean jateko adina atera nuen.

**Lehen esan duzunez 11 urterekin anguletara joaten zinen.**

Orduan ez zegoen beste aukerarik. Joxe Juan Bereziartuarekin joaten nintzen. Gure etxean diru gutxi zenez, angula ateratzen bazen edo ez bazen, gauero 11 pezeta ordaintzen zizkidaten. Zortzi egunean jarraian ere anguletara joan izan ginen. Hala ere, nik gaizki pasatzen nuen. 11 urte besterik ez nituen, bere etxera joaten nintzen lotara eta ezin izaten ninduen esnatu. Oraingo umeei esan behar 11 urterekin...

**Askotan joana zara beraz anguletara...**

Benoi!!! Neronek motor bat ere ekarri nuen Pasaiatik. Denok biziatu ginen garai hartan. Gero aspertu egin nintzen. Bi sozio ginen, bera jubilatu-ta, baina ni ez. Beti deika ari zen, baina nik base-rrian zortzi behi banituen eta Michelinen lana gai-nera. Nazkatu eta txalupa saldu egin nuen. Geroztik burnizko ala ere eduki dut eta hura ere pasa den urtean saldu nuen. Ibaian gaz-

terik ibili behar da, behin adin batera iritsi ezker... Pasada txar asko hartzen da anguletan.

**Eta anguletan ez bada jubilatatu ondoren zertan pasatzen duzu denbora?**

Buruz jokatu behar da. Astean bertso eskolara joan bertso batzuk kantatuaz, afari batzuk egin lagun artean... hori bai, baina angulak? besteek ateratakoak jan ahal baldin bada. Angulik gabe ere afari ederra egin daiteke.

**Txikitán, apaizak mutil azkarra zinela esan omen zion zure amari ezta?**

Don Segundo Aguirresarobe zen apaiza. Nire amari esaten zion: "zure semeak ikaragarri buru azkarra du, baina gogorik ez". Gu eskolara joan da ere txori kabietan gelditzen ginen askotan. Eskola gutxi dut nik, lau arauak ikasi nituen juxtu-juxtu.

**Bertsoak botatzen behin baino gehiagotan ikusi zaitugu. Aspaldiik zabilza mundu honetan?**

Ez, duela lau urte inguru hasiko nintzen. Beti izan dut bertsolariek bertsoa zer sisteman egiten zuten jakiteko gogo. Garai hartan Lasarteko Pablo Suberbiolak Osinalde saria irabazi zuela ikusi nuen telebistan. Nik hau eta Otamendi kalean ikusten nituen, non "entrenatzen" zuten galdetu eta astebetara hasi nintzen. Nikolas Zeberio izan zen nire lehenengo irakaslea. Gero hasi nintzen Usurbilgo bertso eskolan.

**Hala ere lehendik ere egiten zenuen bertsoetan ezta?**

Kantatu bai, kantatzen nituen, baina bertsoa nola egin behar zen ez nion tankerarik hartzen. Orain askoz gehiago dakit.

Josu Aranberri

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**

**JOSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2ª. Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

9 4 3  
3 7 1 9 5 4

**INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA**



**URTINEA  
LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 943 36 22 55

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Zubiaurena, 10 Tlf. 943 37 18 07  
20170 USURBIL-GIPUZKOA



# TXOKOALDE

Olatz Goenaga



## Esne gutxiago baserrietan

**T**xokoaldeko baserritarrak pixkanaka pixkanaka beren ikuluetatik behiak kentzen hasi dira. Orain momentu honetan Portu baserriak bakarrik jarraitzen du esnetarako behiekin, lehen garai batean ia baserritar guztiak saltzen zuten esnea kooperatibetara.

Behiak kentzen azkena Errementaldegi baserriko **Justo Kamino** izan da. Bizitza osoa behiekin lanean aritu ondoren, behiak kentzea erabaki du, bat etxerako utziz. Justoren ustez arrazoi asko dira baserritarrari erabaki hau hartzen laguntzen diona. Hasteko esne saltzaile bakoitzak kuota batzuk bete

behar izaten ditu eta horiek betetzea ez da beti erraza. Esneak ere bakterologia eta kalitate kontrolak pasa behar izaten ditu. Bestalde baserri txikiak ez ditu behi asko eta bete beharreko kontrol eta exijentziak baserri handien berak dira.

Beraz baserritar txikiak behi gehiago jarri edo behiak kentzeko dileman aurkitzen dira. Behi asko edukitzeak toki handia eskatzen du, janari gehiago... eta kuotak ere hor jarraitzen dute. Bestalde argi dago lan hau oso gogorra dela, ez dagoela oporrik, irabaziak ere gutxi direla eta eguneko ordu asko dedikatu behar zaizkiela

behiei. Hau ikusirik jende gaztea ez da animatzen jarraitzera, ez baituu ikusten etorkizunik. Gizarteko beste gauza batzuetan gertatzen den bezela, baserri handia baserri txikia jaten ari da, eta denda askotan bertako esnea galestiago dago kanpokoa baino, eta erosleak merkeena erosten du noski.

Hala eta guztiz ere, behiak uzteko erabakia errezago har dezakete baserritik kanpo dirua irabazten dutenak, baina baserritik bakarrik bizi diren baserritarrak badaude eta erabakia hartzea zaila izaten da.

# KALEBERRI

Ines Kamino



## Eskola edo Maistrania

**H**emendik aurrera Kaleberriko kronikan auzoko etxe zaharren berri ematen hasiko naiz. Hau da lehenengo, baina gustoko dituenak datozen nire kroniketan izango du etxe gehiagoren berri. Nik

daukadan informazioa osatzeko, ordea, gustora hartuko nuke Kaleberriko etxe hauetan bizi zaretenok emandako informazioa.

Oraingoan **Noaua! Kultur Elkarte**a dagoen etxearekin

hasiko naiz. Jakin dudanez, lehen **“Eskola edo Maistrania”** deitzen zitaion. Izan ere urte askotan nesken eskola izandakoa da. Etxe hau, usurbildar askoren eskola izan zen garai batean. Oraindik ere, **Noaua!ko** egoitzara etorzen direnean emakume batzuek

ondo gogoratzen dituzte hemen bizi izandakoak..

Postarien txokoa izan zen gero eta goiko pisuan etxebizitza bat ere jarri zuten, eta bertan bizi zen postetxeko langile bat.

Eta momentu honetan **Noaua! eta Sagardo Egunaren Lagunak** taldeen egoitza da “Eskola edo Maistrania”. Baina ez denbora askorako. Dakizuen bezala laister botako dute etxe zahar hau etxebizitza berriak egiteko.

Bukatzeko, txori txiki batek esan didanez eskolako neskek etxe atzekaldean zegoen Arandotik aranak lapurtzen zituzten.





iran

# ATXEGALDE

## Garai haietan...

Iñigo Gutierrez



**B**adirudi Atxegaldeko kronika idazterakoan beti aurpegi berdinak dabiltzala eta oraingo honetan nik nahi izan dut hitz batzuk idatzi eta hemen doa nire lehenengo parte hartzea.

Ematen duenez Atxegalden beti obretan gaude, eta azken aldian hala egon garen arren, gure auzo honetan bada beste konturik. Gaia zerbait aldatzearen garai batean festak nola ospatzen genituen kontatuko dizuet.

Iraileko aste bukaera bat motz geratzen bazen ere, tope-topean ospatzen genituen. Aste bete lehenago plazako

taberna montatu, toldoa jarri, altabozak kokatu...gogoratzen naiz antzerkia ere egiten genuela, eta hau bai, hilabete batzuk lehenago prestatu behar izaten genuen. Han ibiltzen ginen auzo elkarteko lokalean, behin eta berriz, gure paperekin aurrera eta atzera, Kontxa genuelarik guztien buru. Harek bai pazientzia galanta gu aguantatzen!

Gainera, antzerkiaren ondoren, "aktore" ginen guztiok oparia jasotzen genuen.

Gauetan musikak girotuta dantzatzen egin, eta egunez jolas eta ikuskizunez gozatuz, segituan pasatzen zen aste bukaera,

batez ere eguraldiak laguntzen bazuen. Ai, ai, ai, berriro etorriko ote dira garai haiek!



# KALEZAR

## Ikastolarekin orain zer?

Ainara Uribe



**A**skotan komentatu dugu Aumeak Agerialdera joan direnetik Udarregi zaharra hutsik geratu dela. Zer nolako aprobeitxamendua izan dezake hutsik geratu den eraikuntza haundi honek?

Auzotar batzuek bilatu dute ikastola honi etekina ateratzeko modua: alde batetik Peña Pagola elkarteko kideek sozietatea tamainuz majoa dute nonbait, baina hauen arazoa almazena txikia geratu zaiela da. Beraz, gela bat hartu dute ikastetxean konponbide moduan.

Bestetik festak antolatzen dituen taldea ere ez da begira

gelditu. Hauek ikastolaren zati bat hartu dute astero elkartu eta bilerak egiteko.

Lehen Harane futbol zelaiak, aldagelen goiko aldean duen tokia eskeini zitzairen. Orain, bilerak non egin izango dute eta San Juanak hastean, behar duten materiala gordetzeko txoko bat ere bai. Aurreko urteetan Exkerrene-koen garaiekin betetzen baitzuen funtzio hau.

Gazte kuadrila honi galdetu diot ea "gaztetxe" bat mar-



txan jartzeko aukera pasa zaien burutik, baina badirudi aurreko lokalarekin izandako istiluek oroitzapen txarrak ekartzen dizkietela eta ez dutela ezer jakin nahi gai honekin.



# SANTUENEA

Alfonso Vidal



## Errepideko marrak zahartuta

**S**antuenea urbanizatu zute-  
netik urte asko pasa dira.  
Orduan, errepideko marrak  
margotu zituzten kotxeentzako  
aparkalekuak eginez. Orain,  
ordea, oso zaila egiten da ikus-  
tea marra horiek non dauden,  
oso gutxi ikusten baitira.

Gero, kotxea aparkatzerako-  
an marra hauek errespetatzea  
beste gauza bat da, baina  
udaletxeak pasadatxo bat  
ematea ez litzateke batere  
gaizki etorriko. Modu honetara  
aparkatzeko tokia askoz hobeto  
aprobetxatuko delakoan  
nago.

Bestalde, gaur egun puri-  
purian dagoen gaia da birzikla-

tzerarena. Ba gure  
auzora ere iritsi da  
kontua eta  
Santuenean eduki-  
nontzi berria jarri  
dute. Oraingoa  
horia da eta diru-  
dienez plastikozko  
ontziak (lixibarena,  
suabizantearena),  
metalezko poteak  
eta tetra-brikak  
botatzeko da.

Benetan positiboa da kontu  
honekin kontzentziatzea eta  
gure etxeko zaborra banatu  
eta sailkatzea, baina, ez ote  
gara erotuko hainbeste kolore-  
rekin? Berdea, horia, urdina, a  
zer nolako kolore festa!



Esan behar da ere, faltan  
botatzen dugula batzuk  
Santueneko Ibai Ondo elkarte  
gure afariak egiteko aste buka-  
eretan, baina, oraingoz behin-  
tzat, itxoiten jarraitu beharko  
dugu lanak bukatu arte.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Hau ez da zabortegia

**B**adira hilabete batzuk  
konturatu ginela, baina  
geroz eta zabor gehiago pila-  
tzen ari denez hitz batzuetan  
argi eta garbi esan nahi nuke  
gure auzoan dauden sasiek ez  
dutela zer ikusirik zabortegi  
batekin.

Badakigu eskonbrera hor aur-  
kitzen dela baina ez naiz horre-  
taz ari. Ni kezkatzen nauena,  
Urdaiagatik Andatza bidean  
aurkitzen diren sagastietan aur-  
kitzen den zaborra da. Inork ez  
daki nor edo nortzuk izan diren  
zaborra hor bota dutenak,  
baina mota guztietako zaborra  
aurkitzen da bertan, poltsak,  
labadorak, kristalezko poteak,  
latak...baina ezin jakin seguru

zer gehiago aurki dezakegun  
guzti horren azpian.

Bestalde, aparkalekuak ere  
zaborrez betetzen dira edozein  
momentutan, baina jakin nahi  
nuke zein den arazoa; zaka-  
rrontzi falta behar bada!

Nik dakidanez, nahiz eta  
asko ez izan, hemen dauden  
zakarrontziak nahikoa dira  
auzoa garbi mantentzeko  
gogoia izanez gero.

Bestalde, eta zabor kontuak  
alde batera utzita, Santuenetik  
Urdaiagara doazen eskailera-  
ren egoera kaxkara adierazi  
nahi nuke, negu partean ia  
ezinezkoa baita bertan ibil-  
tzea. Hostoak lurrera erortzen

dira eta euria eginez gero oso  
irristakorra gertatzen da. Beraz,  
hau guztia esan ondoren,  
hona etortzeko asmoa duzue-  
nok hobeto izango duzue kontuz  
igotzea, ipurdikorik hartu nahi  
ez baduzue behintzat.





# AGINAGA

## Bukatu da angula garaia

**A**urten ere iritsi zaigu urtero bezala udaberria. Dagoeneko zuhaitzak loretan hasteko zorian, lurra lantzeko moduan...baina honekin batera negu osoan zehar bakarren batzuk egin duten lana ere bukatu da. Bai, angula urtea ere iritsi da bere bukaerara eta aurten inoiz baino eskasagoa izan omen da gainera. Ez daude batere gustora emaitzekin, eta ez da batere harritzekoa.

Izan ere, urriaren erdialderako hasi ziren denak beren txalupak, baheak, txitxardin askak prestatu eta ilargi berria zen gau guztietan eta baita euria

egin osteko gauetan ere ibaira bueltaka. Gabonak inguruan izan omen zen ale gutxi batzuk biltzea lortu zuenik Orioko zubi inguruan, baina gehienak batere ez.

Bigarren saiakera San Sebastian inguruetarako angula mordoxkadaren bat osatzea izaten da, eta aurten ere saiatu dira, baina alferrik. Ibaia eta haren inguruko gorabeherak ni baino hobeto ezagutzen dutenek hala diote: "aurtengo neguan askotan hazi ditu urak, euri asko egin du eta ibaia beti urak arretuta ibili da, eta hau horrela gertatzean angularik ez da harrapatzen erditik, bazte-

Izaro Aizpurua



rretik agian...gutxi hemendik ere!"

Orain azkeneko saiakera San Jose egunerako egin dute. Gauetz sumatu ditugu motor soinuak ibaian, baina... hutsik joaten omen dira orain ere etxera. Ez du prezio txarra egin aurten, etxean probatzeko adina ere osatu ezin ordea! Ondoan ibili dena gau osoa pasa eta 400 gramorekin etxera. Ea datorren urterako aurten bidea bilatu ezinik ibili diren animalia txiki horiek bide zuzenean jarri eta gaueko buelta horiek guztiak merezitako saria lortzeko moduan ditugun!

# ZUBIETA

## Pelotako berriak

**P**elotako berri ugari ditugu aste honetan. Hasteko, Joko Garbiko Euskadiko txapelketan, ezker paretean, Zubieta Pilota Elkarteko jokalariek bi finaletan parte hartu zuten, eta egia esan, ez zuten zorte haundirik izan.

Kadeteetan Billabonako taldea gailendu zitzaion Rezola-Iparragirre bikoteari. Billabonako bikotea oso indartsu aritu zen eta ez zieten gure pelotariei aukera gehiegirik eman.

Bestalde, nagusien mailan, Imanol Aizpurua eta kerman Errekondo aritu ziren finalean. Hauek ezin izan zuten partidua amaitu. Imanolek zoritxarreko

lesioa izan zuen bere hankan eta zuzenean ospitalera eramane behar izan zuten. Hilabete batez emango du igeltsuarekin frontoietatik aparte.

Baita ere, jarri da martxan Endika Abril txapelketa.


Udazkenean bukatzeko geratu zenafinal erdietara iritsi da, eta datorren igandean, hilak 28, bi partidua polit iragarrita daude Zubietako plazan (eguraldiaren laguntzarekin noski:

Mikel Bengoetxea



9.00etan Baiona- Hendaia  
11.00etan Zubieta-Ustaritze

Partidua interesgarriak izango direla seguru gaude eta beraz, animatu nahi ditut Noaúa! zale guztiak bertara azaldu daitezzen.





## Etkez etxeko laguntza zerbitzurako lan poltsa

**U**dalak eskaintzen duen etkez etxeko laguntza zerbitzuaren eskaera haunditzen joan da azken urteetan. Iaz, oporretan edo bajaran zeuden bitartean, etkez etxeko bi laguntzaile finkoen ordezkapenak egiteko lan poltsa osatu bazen ere, aurtun, oinarri berriak idatzi eta lan poltsa berri bat ateratzea erabaki dute herriko ordezkariak.

Etkez etxeko laguntza zerbitzurako langileak kontratatzea da guzti honen helburua. Izan ere, lehen dauden laguntzaileak beren kontratuetan agertzen diren orduak beteak dituzte eta iaz lan poltsa osatzen zutenak ere lanean ari dira. Zerbitzu honek izan duen eskaera haundia ikusita, ordezkapenak egingo dituzten artean lan poltsa bat osatu nahi du udalak.

Lan poltsa osatzeko oinarriak jartzea izan da lehen



pausoa eta zerbitzu hauetan parte hartu ahal izateko zenbait baldintza betetzea beharrezkoa izango da: hemezortzi urte edukitzea, B-1 mailako gida baimenaren jabe izatea (lan honek eskatzen dituen joan-etorrietarako ezinbestekoa da auto bat eskura izatea) eta euskararen ezagutzari dagokionez 2. perfila eskatzen da; hau inork gaudituko ez balu, 1. perfilari dagokiona eskatuko da.

Lehiaketa honetan aukeratzeko dituzten artean poltsa bat osatuko da, eta honek bi urtez iraungo du. Poltsa horretatik norbaiti lana eskaini, eta justifikaziorik gabe uko egingo balio zerrendatik kanpo geldituko litzateke. Kontratua, berriz, aldi baterako izango da, langilea bere lantokira itzuli bitartekoa. Eskaerak uda-lean egin daitezke.

## Troiako arazoa auzitegirako bidean

**U**dalak Eusko Jaurlaritzako Uren sailaren aurkako auzia jarri du. Ekainaren 1ean uholdeak izan zirenetik, Troian historian zehar uholdeek eragin dituzten hondamendiak ikusita, Eusko Trenbideak eta Eusko Jaurlaritzako errepide eta uren sailari konponbideak eskatu zaizkie behin eta berriz.


Irtenbidea Uren Sailak eman behar duela ikusita, hauei

behin eta berriz zerbaitek egiteko eskatu zaie, baina udalak ez du erantzunik jaso. Jarrera honen aurrean eta aurrez betebeharreko tramite guztiak amaitu ondoren, sail horren aurkako auzia sartzea erabaki du. Hala ere, auzi honen azken emaitza ez dute goizetik gauera emango, azken epaia eman aurretik denbora asko pasako da.



**ALBOR TA**  
HARATEGIA

Behoko kalea, 4  
Atxegalde ☎ 943 36 57 42



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**ZENDOIA-ENEA**

 **TABERNA** 

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak,  
eguneroko menuak eta  
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



# H erorrek esan



**Alaitz Kamino Mayoz**

Kaleberri

**C**adiz aldera goaz, baten batek joan behar-ko du ba. Aste Santua baino lehen aterako gara eta 15 egun pasako ditugu. Hala ere, normalean Aste Santuan ez naiz kanpora ateratzen lanean aritzen bainaiz.



**Xabier Alkorta Etxeberria**

Kalezar

**A**ste Santuan hemen geldituko naiz ni. Bi asteko oporrak ditugu eta ikastolara joan gabe egon behar dugunez gustora. Aste Santuan, gainera, orain arte ez naiz inoiz kanpora joan.



**Lur Etxeberria Gurrutxaga**

Kaleberri

**L**au egun pasatzeraz Leizaranera joateko asmoa dut koadrilakoekin. Aurreko urteetan gurasoekin joaten nintzen oporretara, baina aurten lagunekin joango naiz.



**Mª Angeles Maiz Labaka**

Gaztañazpi

**H**iru edo lau egun pasako ditugu Landetan. Azken hiru edo lau urtetan Landetara joaten gara Aste Santuan gizona eta biok. Eguneroko bizitza aldatzeko egun hauek oso ondo etortzen dira.



**Joxe Beraetxe Aranburu**

Kaleberri

**G**ure andre horrek Andaluziara joan nahi du, prozesioak ba omen dira Sevillan, baina ez dakit joango ote garen bila... Ez, ez, Aste Santuan etxean geldituko naiz, Usurbilen. Badakizu, mezetara joan eta...



**Edurne Arrillaga Azkue**

Kaleberri

**A**ste Santuan etxean egoten gara. Egun horietan elizkizunetara joateko ohitura dugu guk. Normalean ez gara kanpora ateratzen eta etxean pasatzen dugu Aste Santua.



**Simoni Aguirre Arratibel**

Kaleberri

**K**anpora? Etxean geldituko naiz eta kanpora ateratzen banaiz txakurrarekin aterako naiz... Nire alabek norabaitera eraman nahi naute, baina ez dut irtetzeko gogorik. 11.30etako mezetara joango naiz Aste Santuan.

## TXIMINIA ALTZARIAK

**Osinalde industrialdea**

(Aizpurua autobusen aldamenean)

**Tel.: 943 37 09 66**

**BISITA EZAZU**

**ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT USURBILEN BERTAN.**

**PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA HANDIA ALTZARI TRINKOETAN. ESKAINTZA BEREZIAK BETI!!**





## Agenda 2000: oraingoan ere herriko nekazariak galtzen aterako dira

**A**zken asteetan komunikabideetan behin baino gehiagotan entzungo zenuten "Agenda 2000" delakoa. Nekazariak ere haserre ibiliai dira Madril-en manifestazioak eginez. Izan ere, Europa Batasuneko nekazaritza ministroek 2000-2006 urte bitarteko nekazaritza plangintza eta aurrekontua lotu nahi izan dituzte. Gehiengoz bezala, Bruselatik etorri diren berriak ez dira batere onak izan. Oraingo honetan ere herriko nekazariak galtzen aterako dira.

Hasiera batean Europatik nekazaritzara bideratzen den diru kopurua murriztea zen Europako batzordearen asmoa. Nekazaritzako laguntzek Europako aurrekontuen zatirik garrantzitsuena hartzen dutenez, nekazaritzarako gastua ahalik eta gehien gutxitzea lortu nahi bazuten ere, azkenean, hasieran jarri zuten mugaren gainetik aurrekontua hitzartu dute. 2000-2006 bitartean urteko 6,7 bilioi pezetako (40.500 euro) aurrekontua lotuta utzi nahi zuten, hala ere, Europako ekonomia ministroek eta gobernuburuek bestelakorik esaten ez badute, urteko 250.000 milioi pezeta (1.500 euro) gehiago ematea erabaki dute.

Europako dirulaguntza horiek Gipuzkoako eta nola ez, Usurbilgo baserrietara ere iristen dira. Larre-behi bakoitzeko 24.000 pezeta inguru eta ardi bakoitzeko 3.000 pezeta inguru jasotzen du baserritarrak.

### **Igartzabaleko Santos**

**Jauregiren** esanetan 2.700 pezeta inguru jaso ditu dituen 308 ardi bakoitzeko. Hori bai, 100 egunetan kopuru hori mantentzea eskatzen dute. Europako dirulaguntzak pro-



dukzioaren arabera ematen direnez orain arte Europak nekazal ustiaketa haundiak indartu izan ditu dirulaguntzak emateko erabili duen sistemarekin.

Xabier Goikoetxea EHNEko ordezkariaren esanetan dirulaguntzak hektareen arabera kobratzen dira eta hori ez da bidezkoa. "Iparraldean badaude 100, 200, 300 eta 500 hektarea baino gehiagoko nekazari ustiaketak baina Gipuzkoan adibidez, baserritarrek 10 hektarea dituzte bataz

**Larre behi bakoitzeko 24.000 pezeta inguru eta ardi bakoitzeko 3.000 pezeta inguru jasotzen ditu baserritarrek**

beste. Honela, ustiaketa haundiak indartzen dira Europako dirulaguntzak banatzerakoan. Britainia Haundiko erregina eta Mario Conderen adibideak jartzen ditugu guk beti. Bi

hauek sekulako terrenoak dituzte, izugarriko ganadu kopurua dute, eta nahiz eta nekazariak ez izan sekulako dirulaguntzak jasotzen dituzte". Datuetan esanda, Europako dirulaguntzen %80a nekazarien %20ak jasotzen du, gainontzeko %80ak berriz, gelditzen den %20a.

Bai nekazari sindikatuek eta bai adituek "Agenda 2000" 2000-2006 urtetarako nekazari plangintza egiterakoan, banaketa desorekatu honekin amaitzeko aukera galdu dela uste dute. Ustiaketa hauek jasotzen duten dirulaguntzei muga jartzea eskatzen zuten zenbait herrialdek eta baita Gipuzkoako nekazariak ere. Hala ere, Europako Batasuneko herrialdeen artean tirabira bat baino gehiago izan da. Zenbait herrialdek ez du erreforma gauzatzeko behar adina diru jarri nahi. Horrez gain, nekazari ustiaketa haundiei ematen zaien dirulaguntzei muga jartzearen aurka azaldu dira.

Nekazari sindikatuen ustez plan berri hau ez da batere ona Gipuzkoako nekazarien-



tzat. "Gauzak normal joaten badira esnearen eta haragiaren prezioak jeitsi egingo dira eta jeitsiera hori dirulaguntzen bidez ordezkatzera da beren asmoa. Baserritarrak merkeago saldu beharko du, dirua galduz kasu honetan, eta Europak dirulaguntzen bitartez mantenduko lituzke". Hala ere, Gipuzkoako baserriek zenbat ekoizten duten, zer prezioetan saltzen duten gaur egun, hemendik 3-4 urtera zenbatean saldu beharko duten eta zer dirulaguntzak jasoko dituzten aztertu ondoren hauxe da atera duten emaitza:

- Esnearen sektorean %13a gutxiago irabaziko dute baserritarrek.

-Haragiaren sektorean %18a gutxiago irabaziko dute baserritarrek.

Europako nekazaritza ministroek adostutakoaren arabera esne sektorearen erreforma 2003-2004 urte arte atzeratuko dute. Bitarte horretan Espainiako estatuak hiru urtetan 550.000 tona esne gehiagoko kuota izango du. **Xabier Goikoetxeak** aurreratzen duenez negoziazio gogorra izango da hor. "Esne kopuru hori autonomia desberdinen artean banatu behar da. Euskal Herriak bere kuota eskuratuko du, baina borroka izugarria

**Esne sektorean  
%13 eta haragiaren  
%18  
gutxiago irabaziko  
dute baserritarrek  
epe laburrean**

izango da, honelako kuota eskuratzerakoan administrazioarekin egiten diren negoziaketan autonomia bakoitzak bere trikimailuak baititu".


Haragi behiei dagokionez, idiskoengatik ematen dutenak %20 igoera izango du eta larre

## Errementaldegiko Justok ere bai

**A**zken urteetan Usurbilen ere nekazaritzaren gainbehera nabarmena da. Txokoaldera joan besterik ez dago hori horrela dela konturatzeko. Errementaldegi baserriko **Justo Kamino** izan da behi esneak kendu dituen azkena. "Guk lau esne behi eduki izan ditugu ia beti. Hauek ematen zuten esnea auzoan banatu edo eta Copeleche edo Gurelesa bezalako enpresei saltzen genien. Hauek 40 pezeta besterik ez dute ematen esne litroko, eta horrez gain esnea osasun baldintza jakinetan eraman

behar genuen, bestela ez zuen balio. Horregatik esne produkzioan baja eman dugu aurten".

Esne behien hustiaketak aurrera egin dezan 50-70 behi beharrezkoak direla us-te du Justok. "Guk, ordea, ez dugu horrenbeste behi edukitzeko ez terrenorik ezta indarririk ere. Gu zahartu gara eta ezin dugu honekin aurrera egin. Orain, baja emategatik diru kopuru bat jasoko omen dugu. Hala ere, esan digutenez jende asko dago diru horren zain".



behiak edukitzegatik ere gehiago emango dute. Europako Batasunak behi buru bakoitzeko diru kopuru bat ematen dio abeltzainari merkatuko prezio apalak orekatzeko.

Europatik inposatuko duten nekazaritza plana garrantzitsua bada ere, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak nekazaritza behar adina ez dutela zaintzen kexatzen dira herriko nekazariak. Batetik oso diru gutxi bideratzen omen da nekazaritzara, eta bestetik dauden baliabideak ez omen dira behar bezala erabiltzen. Guzti honek nekazaritzaren

gainbehera ekarri du. 1982an Gipuzkoan 6.125 lagunek atzeratzen zuten bizimodua nekazaritzatik, 1995ean 3.500 herritarrek baino ez, eta iaz 2947 baserritar zeuden Gipuzkoan. Guzti hau salatzeko eta "erakundeek nekazaritzaren aldeko benetako apustua egin dezaten eskatzeko" manifestazioa egingo du EHNEk (Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak) Donostian martxoaren 27an eguerdiko 12.00etan. Nekazarien ustez, nekazaritzaren aldeko apustua egiteko garaia da, arriskuan baitago.

**Josu Aranberri**



## Guk ere egin dezagun Korrika!

**Z**ortzi egunez gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren iritsiko da Korrika 11 Usurbila. Martxoaren 28an Donostian amaituko den euskararen aldeko ekitaldi garrantzitsuenarikoa, aurretik Usurbildik pasako da, 2.100 kilometro egin ondoren gau eta egun. Kostaldetik etorriko da Korrika 11 eta goizeko 8.30ak aldera izango da Aginagan. Hala ere, Korrika 11ren martxa galdu nahi ez baduzue adi ibili, azken eguna izanda lehenago ere etorri daiteke eta!

"1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz". Bat eta bat eta beste bat. Hamaika ahalegin egin da herri honetan, euskarak behar duen tokia har dezan. Eta Korrika 11 datorrela eta hamaika ekitaldi prestatu dira herrian azken asteetan. Hala ere, azken traka onena izaten dela esan izan da, eta hori ere gainean dugu.

### Kantu afaria bezperan

Martxoaren 28an dator Korrika 11 Usurbila, baina giroz hasteko kantu afari bikaina antolatatu da bezperarako. Bapo jan eta edateko aukera izango bada ere, kantua gogoko duenak aukera paregabea du bere kantu abilezia beste guztiei erakusteko. **Berreiarzako Begiristaindarrak** akordeoi eta saxofoiaz lagunduta kantu bilduma polita prestatu du korrikako batzordeak. Ez pentsa txantxetako



denik, astean zehar entsaiztzen ibili direnak ere badira eta!

Iritsiko da martxoaren 28a, Korrika 11 Usurbildik pasako den eguna. Duela bi urte Goierri aldetik etorri bazen ere aurten kostaldetik etorriko da. Izan ere, antolatzaileek jarritako ordutegiak betetzen badira **8.30etan Mapilgo bihurgunean** hasiko da Korrika 11ko Usurbilgo lehen kilometroa. N-634 errepide nagusia hartu eta **Aginaga** pasa ondoren, **Kale Nagusitik** barrena **Bordatxo aurreko errotondaraino** sartu-

**"Aginagan, Mapileko bihurgunean hasiko da herriko lehen kilometroa. Martxoaren 28an goizeko 8.30etan iritsi behar luke Korrika 11k. Hala ere, konfuz! Azken urteetan, bukaera lekura denbora baino lehen iritsi izan da azken egunean"**

ko da Korrika. Kaleberrin, ordea, ez du denbora askorik egingo. Aldapan behera joan eta **Ostapeko irteeratik Txikiardi aldera** egingo baitu segidan. Hemendik Zubietan sartuko da Araeta baino aurrerago amaituko direlarik usurbildarren kilometroak. Guztira 9 kilometro izango ditu usurbilgo ibilbideak.

Bederatzi kilometro hauetan talde desberdinek eramango dute lekukoa. Aginagako Jai Batzordea, Berriola-Fagor, Herri Batasuna-Senideak-Gestorak, EHE-Noaua!, Udala, Udarregi ikastola, Andatza K.K.E., Etumeta euskaltegia, herritar talde bat, Usurbil Intsumitua eta Zubietako Herri Batzarra izan dira kilometro osoak edo erdiak dituztenak.

Korrika 11ren festa ez da hor amaituko. Izan ere, usurbildik 11 kilometrora, Donostian amaituko baita mende honetako azken Korrika.

**Bideo eta ARGAZKIak**

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

OIARTZUN

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL



## Euskaraz? Inoiz baino errazago

EKB, AEK eta Euskaldunon Egunkariak bultzatuta euskaraz trebatzeko 50 orduko ikastaro berezia eskaini nahi die herritar guztiei. Usurbilen apirilaren 12tik 24ra matrikulatu izango da Etumeta Euskaltegian bulego orduetan eta klaseak apirilaren amaieran hasiko dira. 50 orduko ikastaro berezi honetan parte hartu nahi duenak 27.000 pezeta ordaindu behar du, baina trukean Euskaldunon Egunkariaren urte osoko harpidetza jasoko du.



**A**rrantza denboraldia hasi da ja. Pasa den martxoaren 19a ezkeroztik **arrantza egin daiteke Euskal Herriko ibaietan**. Arrantza gustoko dutenak uztailaren amaiera arte amuarrainak harrapatzeko aukera paregabea izango dute hemendik aurrera. Oria ibaian ere arrantza egin daiteke. Usurbilen **Ingemarreko presan jarri dute muga**, Hala ere, Lasarte eta Usurbilen artean arrantza egin nahi dutenek harrapatutako arraina uretara bota behar duite beti.

## Martxoaren 28an ordu aldaketa

Martxoaren amaiera gertu dugun honetan udaberriari sartu garra. Hilaren 21a ezkeroztik udaberria gurean dugu, eguraldiari begiratuta bestelakorik ematen badu ere. Eguna luzatzen hasi da, eta datorren martxoaren 28tik aurrera beranduago ilunduko du. Izan ere, egun horretan egingo da ordu aldaketa. Elizako dorrean ordubiak jotzen dutenean hirurak izango dira. Beraz, badakizue, aldeztatik aurreratatu dezakezue ordua.



**A**nton Olariaga marrazkilaria eta ilustratzailea Usurbildarraren lanak ikusi nahi dituenak aukera ezin hobea du oraingoan. Martxoaren 11 ezkeroztik, usurbildarrak marrazkigintza, ilustraziogintza eta kartelgintzan egin duen lana jasotzen duen erakusketa zabalik dago Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan. Lehen aldiz bildu da bere lana erakusketa batean, eta bertan, 1975etik gaurdaino egindako lanak aukeratu eta diseinatu ditu Tipula taldeak.



**H**ilerri berria eraikitzeke lanak hasi dituzte ja. Horrenbeste urtetan proiektua izan dena egi bihurtzeko bidean da. Oraingoz **lur mugimenduarekin hasi dira** eta hemendik aurrera izango dute nahikoa lan hura guztia berdintzen. "**Altuna y Uria**" enpresa hasi da hilerri berria eraikitzen eta **13 hilabetetan amaituta** egon behar du. Lur guztiak erosi ondoren, 104.645.985 pezetatiko aurrekontua izango du lehen erretokia zegoen inguruan egingo den hilerri berriaren eraikuntzak.

Haur jantziak



Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



TABERNA

"GYRE PRESOK

HERRIAN BEHAR DITVGV"



Irazu Kalea, 12  
Tlf: 943 36 02 17

Zinkildagia

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak


Aritzeta 1. behean  
20170 Usurbil Tlf: 943 36 17 87



# Pelotari gazteak banakako txapelketan

**H**erriko pelotari gazteak txapelketa goseak dau dela dirudi. Entrenamenduetan ere txapelketa jokatzeko hasi zaizkigu. Izan ere, azken hilabeteetan herriko txapelketa jokatu dute 7-16 urteko pelotariak eta azken partidutara iritsi dira ja. Pasa den martxoaren 19 eta 21ean jokatu zituzten finalerdiak eta hilaren 27an izango dira azken partiduak.

Txapelketa bat jokatzeko ez da zuriz jantzi beharrik. Horixe erakutsi digute herriko pelotari gazteek. Txapelketa gosea asetzeko entrenamenduetan herriko txapelketako partiduak jokatu ondoren azken partiduetara iritsi dira. 7-16 urte bitarteko herriko 60 pelotari gaztek parte hartu dute banakako txapelketa honetan.



Pasa den martxoaren 19an eta 21ean jokatu zituzten finalerdiak ikuskizun polita eskaini zuten. Hauxek izan ziren emaitzak:

7 urtekoak  
Xabier Sancho **18** Eñaut Oiarbide **2**

Jokin Irastorza **18** Eñaut Pagola **15**  
9 urtekoak

Unai Olaizola **9** Imanol Esnaola **18**  
Eñaut Esnaola **18** Gorka Iradi **12**

10 urtekoak

Zuhaitz Lizaso **13** Jon Esnal **18**  
Iñigo Irastorza **18** Eneko Urdangarin **12**

11 urtekoak

Joseba Bengoetxea **11** Endika Berradre **18**  
Jurgi Olasagasti **18** Joxemi Furundarena **7**

12 urtekoak

Imanol Agirretxe **18** Unai Sarasola **9**  
Beñat Lorenzo **18** Xabier Izeta **10**

13-14 urtekoak


Ibai Orena **18** Isaak Arruti **8**  
Jon Irazustab. **18** Patxi Bengoetxea **2**

15-16 urtekoak

Asier Portu **12** Asier Arruti **18**  
Xabier Iribar- Iban Aranalde (susp.)

Finalerdiak jokatu ondoren datorren martxoaren 28an jokatu dira 11.00etan hasita txapelketa honetako azken partiduak.

Josu Aranberri



**N • U**  
**Ileapaindegia**

MISTOA  
Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51

**GALARRAGA  
GARRAIOAK**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

**BORDATXO  
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42





2. nazional mailako eskubalo taldeak hil ala biziko partidua jokatu-ko du datorren martxoaren 28an Oiardo kiroldegian Ereintzaren aurka. Ligako azken partidu honen aurretik bigarren postuan daude eta bigarren postu hori beharrezkoa du telehen mailara igotzeko fasea jokatu nahi badute behintzat.

### MARTXOAK 27 larunbata

- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T. - Soraluze**. Harane futbol zelaian 17.00etan.
- Kadete mailako **futbol partidua**: **Orioko - Usurbil F.T.** Orioko Antilla futbol zelaian.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Urola - Usurbil K.E.**
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **San Ignacio - Usurbil F.T.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Hondarribia - Usurbil K.E.** Hondarribiko kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Hondarribia -**

**Usurbil K.E.** Hondarribiko kiroldegian.

- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Bergara - Usurbil K.E.**

### MARTXOAK 28 igandea

- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Ereintza**. Oiardo kiroldegian 11.00etan.
- **Herriko pelotari gazteak**, 7 eta 15 urte bitartekoak, **herriko txapelketako partiduak** jokatu dituzte entrenamendutan. Gaur, goizeko 11.00etan hasita txapelketa honetako finalak.
- Hondartzako **futbol txapelketa** Kontxako hondartzan. **Bar Irrintz- Aginaga Sagardotegia**.

## Emaitzak

### Futbola

#### Martxoak 13-14

Usurbil F.T 1 Segura 2 (1.R.)  
Hernani 0 Usurbil F.T 1 (n.)  
Antiguoko 5 Usurbil F.T 0 (2.ju)  
Usurbil F.T 3 Mollarri 4 (2.ka)

#### Martxoak 20-21

Amaikak Bat 2 Usurbil F.T 1 (1.R.)  
Usurbil F.T 0 Hondarribia 2 (n.)  
Usurbil F.T 2 Idiazabal 1 (2.ju)

### Eskubaloia

#### Martxoak 13-14

Usurbil K.E. 26 Arrasate 16 (2.N.)  
Usurbil K.E. 36 Leizaran 23 (ju.m)  
Giherriko H.C 14 Usurbil K.E. 20 (ju.n)  
Usurbil K.E. 25 Aloña Mendi 17 (ka.m)

#### Martxoak 20-21

Barakaldo 26 Usurbil K.E. 28 (2.N.)

### Futbol aretoa

Antxeta 4 Cong. Iceberg 3

### Hondartzako futbola

Trofeos Egia 7 Aginaga Sag. 3  
Aginaga Sagard. 2 Mecarapid 2

### Laburdurak

R.: errejionalak ju.: jubenila  
N.: nazionala ka.: kadeteak

## TXURRUT edaritegia

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel.: 943 36 00 80

## JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxadaren konponketa




Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83


Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67



## Azken egunak!



**1**998ko, baita 96-97ko **Noaua! guztiak koadernatzeko** epea Aste Santu artekoa da. Beraz, oraindik gure aukera ez baduzu aprobetxatu mugi eta joan zaitez ale guztiekin Laurok edo Lizardi liburudendetara. Aukera ezin hobea duzu **Noaua! aldizkariak** txukun edukitzeko, edozein kontsulta egin behar baduzu. Izan ere, modu apalean bada ere, Usurbil herriko gaur egungo historia bertan duzu. Animo, beraz! **Eta aprobetxatu azken egunak!**



## Zatoz korrika Noaua!-rekin

**D**akizuenenez, datorren martxoaren 28an, goizeko 8.30etan, gure herri-tik pasako da Korrika 11. Hau dela eta, Noaua! Kultur Elkarteak bat egin du AEK-ren ekimen honekin, herriko hainbat taldek bezalaxe. **Noaua!-ko** bazkide eta irakurle zaretenoi bertan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu nahi dituzuen km guztiak egin ditza-zuen. Baina, tarte bat bada berezia izango dena noauakideontzat: Zubietara bidean doanean, Ostape paretsu horretan, **Noaua! Kultur Elkarteak** hartuko du lekukoa. Eraman nahi baduzue, ordurako azaldu eta esan besterik ez daukazue. Eta ez baduzue eramán nahi, etorri atzetik lekuko horrek beharko baitu bazkide eta irakurleon bultzada!

### BAZKIDIE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: \_\_\_\_\_  
 1. Abizena: \_\_\_\_\_  
 2. Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

**443**

**bazkide ditu Noaualk.**

**Zu ere egin zaitez**

**bazkide**



## Intsumisioa bizkortu, inhabilitazioa gainditu

**P**asa den otsailen Arrasaten egin zuten batzarraren, Usurbilgo udala partaide den Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitateko ordezkariak kanpaina berri bati ekiteko konpromezua hartu zuten. Sindikatu, enpresari eta alderdi politiko-  
ei, akordio bat sinatzeko eskatzen ibili dira azken asteetan. Agiriaren sinatzaileek, eragina duten lekuetan, intsumisio izateagatik ezartzen duten inhabilitazio eskaera guztiak atzera botatzeko konpromezua hartu dute.

Soldaduzkari uko egiteagatik euskal gazteriak jasaten dituen ondorioak amaitu daitezzen, euskal gizarteak eta EUDIMAK, berak proposatzen duen akordioa da hau. Hauen ustez, soldaduzkarekin amaitzeko Euskal Herriak hitzarmen bat behar du.

Euskal Herriak aspaldi egin zuen intsumisioaren aldeko apustua, EUDIMA bera da honen adierazgarri. Hala ere, kode penal berriaren ezarpenak beste bide berri batzuk jorratu beharra ekarri du. Soldaduzkari uko egiteagatik, epaileek, zerbitzu publikoetarako inhabilitazioa ezartzen dute zigor modura. Armada espainiarra eta frantziarrarekin ez kolaboratzeko eta Inhabilitazio hori gainditzeko modua aurkitu nahi izan du EUDIMAK eta Herri Akordio honen bitartez euskal gizartearen borondatea hitzetik ekintzetara eraman.



Herri akordio hau sindikatu, enpresari eta alderdi politikoei zuzendu zaie. Sinatzen duten erakundeek bere eguneroko jardunean, soldaduskaren ondorio errepresiboak ezabatzeko konpromezua hartuko dute. Kode penal berriarekin inhabilitazioaren garaia iritsi da. Zerbitzu publikoetan lan egitea, bekak izateko eskubidea izatea eta beste hainbat eskubide ukatzen dizkiete zigortutako intsumituei, horregatik, hitzarmena sinatzen dutenek inhabilitazio eskaerak atzera botako dituzte.

### Desaktibazio egoera gainditu nahian

**Fermin Vila** EUDIMAKo koordinatzailearen esanetan, Herri Akordio honek, bai EUDIMA eta bai soldaduskaren aurkako mugimendua beste testuinguru batean jarriko ditu. "Gaur egungo desaktibazio egoera hau gaindituko genuke eta erronka berriei aurre egiteko

egoeran aurkituko ginatke. Euskal Herri desmilitarizatuaren borrokari heltzeko prestatuak geundeke hitz batez".

Erakunde hauek hartu dituzten konpromezuak gauzatuko ez balira, zer gertatuko litzateke? Sinaketa egin ondoren akordioa paper hutsean ez gelditzeko, EUDIMAK jarraipen zuzena eta zehatza egiteko ardura hartuko du. Horretarako telefono zerbitzu bat jaritzeko asmoa dute. "Euskal gazteriak non eta nola inhabilitazioa jasaten duen jakiteko inolako baliabiderik ez dugu izan oraindaino. Telefono zerbitzu honen bidez, ordea, edozein gaztek zein eratako zigorra jasotzen duen salatze-ko aukera izan lezake". EUDIMA, salaketa jaso bezain pronto, enpresari, politiko, instituzio edo dena delakoarekin harremanetan jarriko litzateke gazte horren inhabilitazioa baliogabetua gera dadin.

LIBERNA  
TRAGOXRRA

BAZKARIAK  
ETA AFARIAK

Santuenea 23  
Tlf. 36 27 37

**ESTETIKA ZENTROA**

*Elexpe*


Tatuaiak  
Betileen tintaketa  
eta permanentea

**ileapaindegia**

Munolurra 2 Telf.: 943 37 04 62

**JARRI ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN**





**Xabier Arregi  
Iparragirre**

- EHUko irakaslea
- UEUko kidea
- Zubietako alkatea

## Siesta


**B**izimodu azkarra daramagu. Ez dakit lan asko egiten dugun, baina beti presaka eta iritsi ezinik gabiltzala nabarmena da. Eguneroko estuasun eta itolarriari estres deitzen diogu orain eta, gauzak nola diren, atsedean hartzea ere (oporretan eta) estresagarria gertatzen zaigu, den-dena baita ziztu bizian egin beharrekoa.

Bizimolde honek hainbat ohi-turaren galera ekarri du, besteak beste, siestarena. Gutxi dira, zorionekoak esango nuke, astegun soiletan siestarako tartea eta egokiera hartzen dutenak. Bazkaldu bezain pronto, kotxea hartu behar ez duenak bestelako lanetara joko du azkar asko. Eta arratsaldeko lanetik libratzen denak, onenean, medikuak agindutako ibilaldia egingo du bazkalondotan. Baina gutxitan siesta. Hori ez du medikuak agintzen. Hori denbora galtzea da, nonbait.

Ba, mundu zabaleko aditu askok esaten dute osasuntsua dela bazkalondoko loa. Etenaldi horrek, loaldi horrek, sekulako mesedea egiten die buruari eta bihotzari. Diotenez,


siesta arina egin behar da: ordu laurden inguruko iraupe-na, ez ohera sartu, ez etzan, baina burua deskantsuan edukita. Lo-kuluxka, alegia. Orain dela 500 urte bizi izandako enperadore batek esaten omen zuen siesta egiteko traste astun bat hartu behar dela eskuan. Erreminta lurrera erortzen denean, hortxe hogeit bat minutu pasatakoan, esnatu behar omen da (beharko!).

Zenbait lurraldetan gero eta mugimendu zabalagoa dago lantokietan siesta-lekuak jartzearen alde. Ez bakarrik osasuna, produktibitatea ere hobetu egiten omen da siestatxo eginenez gero. Bartzelonan, esate baterako, siestarako gelak jarri dituzte Maremagnum izeneko zentro komertzial batean. Mila pezetaren truke loaldi motz baterako aukera ematen dute eta, lagun batek esan didanez, egundoko arrakasta eduki du ekimen horrek. Luxuzko kontu horiek alde batera utzita, hemen ere jendeak gustura hartuko lituzke lantokietako siesta-gelak. Ni behintzat horretan nago.





## Lehiaketa



**Argazki honetan dauden lau pertsonen izenak ba al dakizkizu?**

**Asmatzaileen artean Tragoxkan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu**

Batetik edo bestetik izen ugari atera dituzue oraingoan ere azkenengo aleko lehiaketaren erantzuna ematerakoan. 10 izen nahikoak ziren eta gehiago ekarri dizkigutenak ere izan dira. Hona hemen argazkian ateratzen direnetako batzuen izenak: Haritz Esnal, Aitzol Arrospide, Oscar Blazquez, Mikel Martin, Igor Guadix, Andoni Aizpurua, Mikel Palacios, Ander Aizpurua, Unai Aizpurua, Xabier Heras, Iban Etxaniz, Iñigo Etxaniz, Aritz Lizaso, Nagore Arriola, Alberto Illarramendi, Gabriel Sarasola, Alex Sanchez, Javier Palma, David Golderos, Sergio Faz eta Juan Mari Hernandez. Erantzuna asmatu duzuenon artean zozketa egin ondoren, **Urko Goikoetxeak** izango du Antxetan afaltzeko aukera. Zorionak Urko!

# Publizitatea jarri nahi duzula?

**Deitu 943-360321 telefonora edo zatoz Noaua!k  
Kale Nagusian duen egoitzara**

**Galdaragintza eta Errementaldegia**

TALLERES  
**SETABU, S.L.**  
TAILERRAK

*Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)*

Telf.: 943 36 08 48



**Kale Nagusia, 9  
Tif. 943 37 33 48  
943 37 09 13**

**USURBIL**



## MARTXOAK 25 osteguna

- **Korrika txikia** egingo dute arratsaldeko 16.00etan hasita **Udarregi ikastolako ikasle eta irakasleek**. Ondoren txokolatea jateko aukera izango da frontoian.
- **Marrazki ipuin kontaketa** izango da Txiriboga tabernan gaueko 22.00etan hasita **Ixabel Agirresarobe** eta Euskaldunon Egunkariako **Mattin** komikilariaren eskutik.

## MARTXOAK 26 ostirala

- **Senideaken manifestazioa**. Arratsaldeko 20.00etan irten-go da frontoitik.
- **Ereintza dantza taldeak** Euskal Herriko sei herrialdeetako **dantzak** taularatuko ditu pelotalekuan gaueko 22.00etan hasita.

## MARTXOAK 27 larunbata

- Andatza K.K.E.k antolatuta **mendi irteera** Antz-era, Nafarroara. Goizeko 8.00etan abituko dira frontoitik.
- Santixabelel jaiak hurbiltzen ari direla eta, **festak antolatzen hasteko bigarren bilera**. Udal aretoan 11.30etan.
- Gaueko afarirako giroten hasteko **jai giroa** frontoian edo dema plazan. Ondoren, gaueko 21.00etan **herri-kantu-afaria** izango da frontoian. Sarrerak Patri, Txiriboga, Benta eta Aitzagan daude salgai **martxoaren 25a bitartean**.

## MARTXOAK 21 igandea

- **Korrika 11 iritsiko da Usurbila**. Goizeko 8.00etan esnadeia

txistulari, trikitilari eta etxeferoekin. **Ondoren denok Korrika egitera**. Egindakoa errekupeartzeko hamaiketako izango da gero. Arratsaldean, berriz, Donostian jaialdi erraldoia.

## MARTXOAK 29 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.


## LANPOSTUAK

- ✓ Errenteriako udalak langile plantillan hutsik dauden bi peoi postu betetzeko deialdia egin du. Eskakerak aurkezteko epea apirilaren 15a. Informazio gehiago G.A.O.ko 53. zenbakian.
- ✓ Errenteriako udalak **bi udaltzain behar ditu**. Eskakerak aurkezteko epea apirilaren 15a. Informazio gehiago G.A.O.ko 53. zenbakian.
- ✓ Ordiziakko udalak **udaltzain bat behar du**. Eskakerak aurkezteko epea apirilaren 12a. Informazio gehiago G.A.O.ko 52. zenbakian.
- ✓ Lazkaoko udalak **administrari bat behar du**. Eskakerak aurkezteko epea apirilaren 9an. Informazio gehiago G.A.O.ko 51 zenbakian.

## OHARRAK

- ✎ **Ford Transit (modelo zaharra)** merke **salzten dut**. Interesatuta bazaude deitu gauean 943 370779 telefonora (Patxi).
- ✎ **Baserri bat erosiko genuke**. Deitu 943 371793 (Izaskun).

## KORRIKA 11 EGITARUA USURBILEN



- **Martxoaren 24an, osteguna**, arratsaldeko 16.00etan **KORRIKA TXIKIA** Udarregi ikastolako ikasle eta irakasleek antolatuta. Ondoren txokolate jatea pelotalekuan.
- Egun berean, martxoaren 24an, Txiriboga tabernan gaueko 22.00etan hasita, **marrazki-ipuina** kontaketa Ixabel Agirresarobe eta Euskaldunon Egunkariako **Mattin** komikilariak eskainia.
- **Martxoaren 25ean gaueko 22.00etan** Ereintza dantza taldearen dantza ikuskizuna frontoian. Euskal Herriko sei herrialdeetako dantzak taularatuko dituzte.
- **Martxoaren 27an, larunbata**, arratsaldean jai giroa frontoian afarirako girotzeko. Ondoren, 21.00etan herri-kantu-afaria frontoian. Txartelak ohiko lekuetan daude salgai hilaren 25a bitartean.
- **Martxoaren 28an, igandea**, 8.00etan esnadeia: txistulariak, etxeferoak, trikitixa. 9.45-10.00ak inguruan Korrika 11 pasako da herriitik. Hamaiketako izango da ondoren. Arratsaldean, berriz, jaialdi erraldoia Donostian.



Zapatak, Kanpinak, Kremaierak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Giltzak kopiatzen ditugu

Kale Nagusia, 2 - Tel: 943 37 27 95

## ● KIROLAK ●

ASTORE  
ADIDAS  
REEBOK



NIKE  
JOHN SMITH  
JHAYBER

## ● MODA ●

LIBERTO  
CHAMPION  
SKECHERS

ETA ORAIN LIBERTO MODA BAKEROA

Tif.: 943 36 65 42

Atxegalde, 10



Hitz egin, irakurri, idatzi, komunikatu...

# Euskaraz?

Inoiz  
baino  
errazago!

Euskaraz trebatzeko  
50 orduko ikastaroa

+

Urte beteko

Egunkariako harpidetza

~~50.400 pzta.~~

27.000 pzta.

euskaldunon  
**Egunkaria**

Ez galdu aukera hau.  
Jar zaitetz harremanetan  
hurbilen duzun euskaltegiarekin



1+1 = hamairika

# KORRIKA

zu eta ur  
enskaraz



## badator badator!

Martxoaren  
19tik 28ra  
Iruñea-Donostia

